

thinking Fadura. Getxoko Kirol Parke Berria.

PROIEKTUAK LEHENESTEKO ARIKETAREN AKTA

Data: 2020/03/04

Bertsioa: 2.0

Balorazio-irizpideak: V.1

Agente inplikatuak: Getxo Kirolak-eko talde teknikoa eta zuzendaritza, eta talde bideratzailea

THINKING FADURA PROIEKTUEN NOMENKLATURA	2
ENTZUTE-ERREGISTROAN JASOTAKO IDEIAK	4
V1EAN ONARTUTAKO PROIEKTUAK BERRIKUSTEA	5
AURRETIK LEHENETSITAKO PROIEKTUAK BERRIKUSTEA	7
PROIEKTU BERRIEN BALORAZIOA	8
DESAKTIBATUTAKO PROIEKTUAK	9
PROIEKTUEN GAINEKO DELIBERAMENDUA	9

1. thinking Fadura proiektuen nomenklatura

1.1. Zer da proiektu bat?

Proiektua da balorazio bera partekatzen duen guztia, nahiz eta deskribapena aldatzen joan proiektuak aurrera egiten duen heinean.

Jarduerak eta laborategiak bereizten ditugu.

- Jarduera da jada abian dagoen zerbait eta segimendua eta kontrola eskatzen dituen.
- Lab (laborategia) herritarrekin kontrastatzeko eta esperimendatzeko gunea da.

1.2. Zer da jarduera bat?

Proiektu berekoak diren jardueren multzoa da.

1.3. Zein egoeratan aurkitzen da proiektua?

1. Adierazia:

- Deskribapena eta helburuak.
- Balioespen ekonomikoa.

2. Baloratua:

- Puntuazioa eman zaio balorazio-ariketan.

3. Onartua:

- Lehenetsi egin da deliberamendu-ariketan.

4. Aktibatua:

- Oinarrizko eta egikaritze proiektua idaztea.
- Aurretiko txostenak (araudia, URA, Ihobe, e.a.).
- Laborategian:
 - Aurretiko analisisa.
 - Talde eratzea.
 - Erronkaren definizioa.


5. Garapenean:

- Obra.

- Proiektu soziala idaztea (proiektua ez da abian jarriko harik eta ekipamenduaren obrak hasi arte).
 - Laborategian:
 - Irtenbidea batera diseinatzea.
 - Irtenbidea prototipatzea.
 - Irtenbidea garatzea.
6. Ebaluazioa:
- Ikaskuntzak.
 - Laborategian:
 - Ebaluazioa.
7. Itxita.

1.4. Laborategia eta oinarrizko eta egikaritze proiektua duten proiektuen ibilbide-orria.

ONARTUTAKO ARKITEKTURA-PROIEKTUEN BIDE-ORRIA



GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA



2. Entzute-erregistroan jasotako ideiak

IDEIA	IDEIA-KOPURUA
PARKEA MUGIKORTASUN-IRTENBIDEEKIN	8
ATLETISMOKO ERAIKINA	5
AIRE LIBREKO JARDUERAK	3
ESTALKIA EGOKITZEA	2
PILOTALEKUAK, EGITURA INDARTZEA	2
ERAIKIN NAGUSIKO IRISGARRITASUNA	1
GARAGARDOTEGIA	1
FADURAKO ERAIKIN NAGUSIKO ALTZARIEN DISEINUA	1
LURZORUAREN KALITATEAREN GAINEKO AZTERKETA	1
ESPAZIO BERAREN GAINEAN PREMIA DESBERDINAK DIRELA ETA SORTUTAKO GATAZKEN KUDEAKETA	1
A.R.R. HARMAILAK	1
ATLETISMOKO BELAR BERRIA / Sokatirako Mundialaren ondoren	1
ESTADIO BERRIA	1
PARKEA MUGIKORTASUN IRTENBIDEEKIN (OBRAK)	1
KANPOKO IGERILEKUAK	1

3. V1ean onartutako proiektuak berrikustea

ID	PROIEKTUAK	HELBURUAK	DESKRIBAPEN LABURRA
001	ERAIKIN NAGUSIKO IRISGARRITASUNA	Eraikin nagusiko irisgarritasuna hobetzea, mugikortasun murriztuko pertsonen sarbidea bermatzearen.	<ul style="list-style-type: none"> Sarrera nagusiaren ondoan igerilekua jartzea. Bi aldagela egokitu jartzea (bat genero bakoitzeko). Ikasketa-gelako mailen ordeztarapala jartzea. Zoladuraren irristakortasuna hobetzea aldageletan eta igerilekurako sarreran. Aldagelen irisgarritasuna hobetzea desgaitasuna duten pertsonentzat.
005	GARAGARDOTEGIA	Garagardotegi berria eta sarrera nagusi berria berreraikitzea.	<ul style="list-style-type: none"> Funtzio anitzeko espazio berria aurreproiektuaren arabera eta elkarreentzako eta klubentzako espazioaz gain. Beste solairu bat sortzea laborategi-zentrorako, tailerretarako, udal co-working-erako. Sarrera berdegunearekin eta zerbitzu publikoekin prestatzea.
028	1/3 SEGURTASUNA. KUDEAKETA- EREDUA	Segurtasun eta konektibitate integralerako kudeaketa-eredua ezartzea, Segurtasunaren eta Konektibitatearen Plan Zuzentzailearen arabera.	<ul style="list-style-type: none"> Segurtasun eta konektibitate integralerako kudeaketa-eredua ezartzea, Segurtasunaren eta Konektibitatearen Plan Zuzentzailearen arabera.
034	LURZORUAREN KALITATEAREN GAINEKO AZTERKETA	Analiza daitekeen lurzoruaren egoera ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> Lurzoruaren Kalitatearen gaineko azterketa.

Egikaritzen ari diren proiektuen gaineko informazioa eta garatu beharreko ekintzak:

- **001 ERAIKIN NAGUSIKO IRISGARRITASUNA**

Proiektua berriz definitzea, orain ez baita beharrezkoa erabiltzaileentzat 2. eta 4. solairurako sarrera bermatzea.

Aldiz, garrantzitsua da bilerak egiteko espazio bat prestatzea eraikin nagusiko behe solairuan.

Eta irisgarritasuna zeharkako ardatzera pasatzea proiektu guztietan.

Proiektuaren egoera Adierazia egoerara aldatzea.

- **005 GARAGARDOTEGIA**

Oinarrizko proiektua jasotzeko zain egikaritze-proiektuari hasiera emateko (ingeniaritza eta segurtasuna sartuko dira).

Proiektuaren egoera Aktibatua egoerara aldatzea.

- **028 1/3 SEGURTASUNA. KUDEAKETA-EREDUA**

Aurrera doa eta laster entregatzea espero da. Ondoren, 2/3 segurtasun-proiektuari hasiera emango zaio. Aste batzuk barru, proiektua entregatuko da.

Proiektuaren egoera Garapenean egoerara aldatzea.

- **034 LURZORUAREN KALITATEAREN GAINEKO AZTERKETA**

Ej-ren irizpenaren zain; bertan, ondorengo proiektuekin aurrera jarraitzeko aukera zehaztuko da.

Ondorengo proiektuetan inpaktua duela berrestea, nahiz eta aurreikusi ez dela eragozpenik egongo honako hauek bezalako proiektuetarako:

- Atletismoko eraikina.
- Pilotalekuen egitura indartzea.

Lurzoruaren txosten negatiboa izan dezaketen espazioen gaineko esku-hartzea egiteko dago, horien gainean jarduera berriak egin behar izateagatik. Jarduera horiek denboraren arabera 2021. urtea baino lehen ezin izango dira egin, eta honako hauek bezalako proiektuetan izango dute eragina:

- Baratzak.
- Aire libreko jarduerak. (Lurrak mugitzeko aurretiko jarduera, 2021).

Proiektu hau Aktibatua egoerara igaro da.

4. Aurretik lehenetsitako proiektuak berrikustea

ID	PROIEKTUAK	HELBURUAK	DESKRIBAPEN LABURRA
007	ESPAZIO BERAREN GAINEAN PREMIA EZBERDINAK DIRELA-ETA SORTUTAKO GATAZKEN KUDEAKETA	0 fasean detektaturiko bi foku hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> Barruko igerilekuetan, abiaduren araberako erreiak eta arautzeko arauak sortzea. Belodromoaren eta Errugbiaren erabileraren gatazka konpontzea, istripuak saihesteko. Sarea jartzea, nahitaez bete beharreko arauak erregulatzea, errugbi pistarako lurpeko igarobidea egitea belodromoa ez gurutzatzeko eta barruko igerilekuak hobetzea. Hobetzeko egungo premiak artatzea: ordutegia, tenperatura,...
010	MANTENTZE- LANETAKO LANGILEEN ESPAZIOAK	Langileentzako lanerako espazioak oro har hobetzea: biltegiak, tailerrak, bulegoak eta aldagelak.	<ul style="list-style-type: none"> Mantentze-lanetako langileentzako guneak: bulegoetarako eta tailerrerako zona berria. Langileek lana egiteko beste espazio batzuk: biltegiak, bulegoak eta aldagelak.
022	ESTALKIA EGOKITZEKO LANAK	Eraikin nagusiko sabaiko itoginak behin betiko konpontzea.	<ul style="list-style-type: none"> Estalkia konpontzea (itoginak), erabiltzeko nahiz eguzki-plakak jartzeko.

- **007 ESPAZIO BERAREN GAINEAN PREMIA EZBERDINAK DIRELA-ETA SORTUTAKO GATAZKEN KUDEAKETA**

Erabaki da gatazken kudeaketa eta bizikidetzakontuak proiektu guztietan kontuan hartzeko zeharkako alderdi bezala pasatzea.

Proiektua Desaktibatua egoerara igaro da.

- **010 MANTENTZE-LANETAKO LANGILEEN ESPAZIOAK**

IT-tik aktibatzea sortu duen arrazoiak jarraitzen duen edo hartutako neurri aringarriak nahikoa diren jakin ahal izateko.

- **022 ESTALKIA EGOKITZEA**

Proiektua Aktibatua egoerara igaro da.

5. Proiektu berrien balorazioa

Entzute-sisteman, eraikin nagusiko espazio hobetzearekin loturiko proiektu berria detektatu da; hau da, 2020ko lehen 6 hilabetetarako gauzatze-konpromisoa duen proiektua da. Balorazio-taldeak ondorengo puntuazioa eman dio proiektuari.

- **017-001 FADURAKO ERAIKIN NAGUSIKO ALTZARIEN DISEINUA**

JATORRIA	100
HELBURUA	64
IRAUNKORTASUNA	85
BIDERAGARRITASUNA	80
BALORAZIOA, GUZTIRA	329
ARRISKUA	0
GAUZATZEKO KONPROMISOA	1
EZ BIDERAGARRIA	0
MENDEKOA	0
EMAITZA	1.329

Proiektuaren irismena gehitzeko, Getxo Kirolak-eko zuzendaritzak erabaki du 18.150,00 €-ko partida ekonomikoa gehitzea, Fadurako eraikin nagusia hobetzera bideratutako jardueren aurrekontutik kenduta.

Proiektua Aktibatua egoerara igaro da.

6. Desaktibatutako proiektuak

- **007 ESPAZIO BERAREN GAINEAN PREMIA EZBERDINAK DIRELA-ETA SORTUTAKO GATAZKEN KUDEAKETA**

Gatazken kudeaketa zeharkako ikuspegi batera eramango da, eta proiektuen metodologian sartu da 5 bertsio berrian.

- **019 ESTALI GABEKO KANTXA BERRIAK**

Proiektu hau desaktibatu eta 002 AIRE LIBREKO JARDUERAK proiektuan sartu da. Zenbateko ekonomikoak hartu duen projektura eraman dira.

7. Proiektuen gaineko deliberamendua

Proiektuak **eztabaidatzeko**, bi baldintza nagusi daude:

A. **Herritarren parte-hartzea**, laborategien bitartez eratua.

B. Obra-proiektu bat izateko beharra, proiektuaren **bideragarritasunaren** inguruko zalantzak argitzeko, **URA** eta **IHOBE** bezalako agentzien ikuspegitik.

Laborategia + obra-proiektua + egikaritze-proiektua + agentzien onarpena behar dituzten proiektuek denbora gehiago beharko dute gauzatzeko, eta, beraz, onartzea lehenetsi behar da mendekotasun hori ez duten eta azkarrago aktibatuak izan daitezkeen beste batzuen aurrean. Horrela, deliberamenduaren bitartez, honako proiektu hauen lehenestea aldi baterako utzi da:

ID	PROIEKTUA	BALORAZIOA, GUZTIRA	EMAITZA
014	BARATZAK	341	0
003	ELIKADURA OSASUNGARRIA	312	312
004	ZERBITZUEN KATALOGOA (Analisia)	302	302
030	INGURUMEN-ARLOKO IRAUNKORTASUNA (M/A balioa)	301	301
016	MANTENTZEA	299	0
015	GARBITASUNA	287	287
031	ALDAGELETAKO SEINALEAK	268	268
027	UREZTATZEA (INGURUMEN-AZTERKETA)	267	267
006	SEGURTASUNA 2/3. KONEKTIBITATEA ETA KOMUNIKAZIOAK	264	0
025	BERRIKUNTZA SOZIAL ETA EKINTZAILTZA BULEGOA	251	0
029	SEGURTASUNA 3/3. PROZEDURAK ETA ANTOLAKUNTZA	247	0
033	ATLETISMORAKO SOROPIL BERRIA/Munduko Sokatira Txapelketaren ostean	181	0

Bestalde, idazkaritza teknikoaren pean garatu beharreko proiektu eta jarduketan multzoak bere mugak ditu aurrekontu bideragarriari eta urte bakoitzean egin daitekeen laborategi kopuruari dagokienez. Muga horietatik abiatuta, lehentasuna eman nahi zaie partaidetza (labs), oinarrizko-gauzatze eta kanpoko agentzien onarpena behar duten proiektuei.

Horrela, lehentasunezko sistema gehienez ere 4-5 laborategi lehenetsiko ditu, 2020an zehar dagozkien proiektuak aktibatzen dituztenak.

Deliberatu beharreko proiektuen zerrendatik kanpo geratzen dira azaldutako hiru baldintzak betetzen ez dituztenak (partaidetza, egikaritze-proiektua eta agentzien onarpena behar dituztenak).

Taulan agertzen diren proiektuak baldintza horiek betetzen dituzte eta, beraz, lehenespenaren xede dira:

ID	PROIEKTUA	BALORAZIOA GUZTIRA	EMAITZA	MENPEKOTASUNA
018	MUGIKORTASUNERAKO KONPONBIDEAK DITUEN PARKEA	343	1.343	
017-001	FADURAKO ERAIKIN NAGUSIKO ALTZARIEN DISEINUA	329	1.329	
009	ATLETISMO-ERAIKINA	314	0	
020	TENIS / PADEL ERAIKIN BERRIA	313	0	
024	A.R.R HARMIAK	289	0	
013	HERRI KIROLAK	275	0	ESTADIO BERRIA
021	ESTADIO BERRIA	244	0	
032	HOCKEY HARMAILA	238	0	PILOTALEKUA EGITUREN INDARTZEA
023	BOLUE	231	0	Posible baldintzak aztertzea

Proiektu taula horretatik, bai **HERRI KIROLAK**, bai **HOCKEY HARMAILA**, bukatu gabe dauden beste proiektu batzuen mende daude (PILOTALEKUEN EGITURA

SENDOTU) edo aktibatu gabe daudenen mende (ESTADIO BERRIA). Horregatik, deliberamentutik bereiztu dira.

Aurreko ariketan (2019ko irailaren 18an) lehenetsitako proiektuekin, aurten gauzatu beharreko proiektuak lehenetsi ahal izateko deliberazio-prozesuari ekin genion.

Horrela, eztabaidatu beharreko proiektuen taula proiektu hauetan laburbiltzen da:

ID	PROIEKTUA	BALORAZIOA GUZTIRA	EMAITZA	MENPEKOTASUNA
018	MUGIKORTASUNERAKO KONPONBIDEAK DITUEN PARKEA	343	1.343	
017-001	FADURAKO ERAIKIN NAGUSIKO ALTZARIEN DISEINUA	329	1.329	
009	ATLETISMO-ERAIKINA	314	0	
020	TENIS / PADEL ERAIKIN BERRIA	313	0	
024	A.R.R HARMIAK	289	0	
021	ESTADIO BERRIA	244	0	
023	BOLUE	231	0	Posible baldintzak aztertzea

Lehenetsitako proiektuak abiarazteko esparrua (1.4 puntua) erabakita, orain zein proiekturi ekingo zaion eta nola egingo den eztabaidatzen da.

Aurtengo lehenetsunetik kanpo geratzen da **BOLUE** proiektua, eta hurrengo proiektuak laborategien bidez martxan jartzea adosten da.

LABORATEGIA	PROIEKTUA
Lab 1	FADURAKO ERAIKIN NAGUSIKO ALTZARIEN DISEINUA
Lab 2	MUGIKORTASUNERAKO KONPONBIDEAK DITUEN PARKEA
Lab 3	ATLETISMO-ERAIKINA ETA A.R.R HARMIAK
Lab 4	ESTADIO BERRIA
Lab 5	TENIS / PADEL ERAIKIN BERRIA

Horrez gain, **011 PILOTALEKUEN EGITURA SENDOTU** oinarrizko egikaritzapen-proiektua ere aktibatzen da, URaren aldeko irizpena lortu ahal izateko aurretiko pausoa, pilotalekuetako instalazioak hobetzearekin zerikusia duten gainerako proiektuak desblokeatu ahal izateko.

Proiektua Aktibatua egoerara igaro da.